Idiazabalgo Udala

OHIKO UDALBATZARREKO AKTA

2026ko ekainaren 25.

LEKUA: Batzar Aretoa

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

BERTARATU GABEKO ZINEGOTZIAK

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

IDAZKARIA: Xabier Otaegi Leunda

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

Gai zerrenda:

1.- 2026-05-28KO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak, aho batez, 2026-05-28ko akta onartzea erabaki du.

Patxi Mujika Olaizola lehen puntua amaitu denean sartu da aretora eta zinegotzi tokia hartu du.

2.- DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Idiazabalgo Udala

2026/332-2026/382 zenbaki bitarteko dekretuen berri eman da eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3.- FAKTUREN BERRI EMATEA.

Faktura zerrendaren berri eman da eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.- 2025-2027 EPEALDIKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA. ONARPENA HALA BADAGOKIO.

Dokumentazioa eta idazkariaren txostena ikusita, Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

1.-2025-2027 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 1 eta 2 lerroak eta 1 eranskineko aldaketak onartzea.

2.- 2025-2027 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 1 eta 2 lerroak eta 1 eranskina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Argitaratzea.

2025-2027 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 1 eta 2 lerroak eta 1 eranskina behin betiko onarpena eman ondoren honakoa da:

Dirulaguntza lerroa: 1. Gizarte ekintza

***Lerro estrategikoa 1. Gizarte ekintza** — Helburu estrategikoak: Gizarte-bazterkeria edo gizarte-kalteberatasun egoeran dauden herritarrak gizarteratzea sustatzea, eta horretarako, udal-baliabide ekonomiko propioak nahiz beste erakunde batzuekin koordinatutako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak optimizatzea. Halaber, adineko pertsonen edota jubilazio-etapan daudenen ongizatea, osasuna eta zahartze aktiboa modu bereizian sustatzea, eta, aldi berean, desgaitasuna duten herritarren gizarte-babesa eta autonomia pertsonala bermatzea. Azkenik, garapen bidean dauden herrialdeetan laguntzea, elkartasunerako proiektuei laguntza ekonomikoak emanez.
— Helburu zehatzak: Gizarte-zerbitzuen baliabideei eta horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa ematea. Gizarte-kalteberatasun egoeran dauden kasuei oinarrizko beharrak, behar zehatz eta ezohikoak —norbanakoak zein familiakoak— estaltzea, arrisku-faktoreen aurrean modu prebentiboan esku hartuz, babesgabetasun-egoerak ekiditeko. Desgaitasuna edota irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsonen gizarte-inklusioari zuzendutako zuzeneko laguntzak bideratzea, bai eta adineko pertsonen isolamendu soziala prebenitzeko eta haien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak babestea ere.

Idiazabalgo Udala

Garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetza eta toki-garapeneko proiektuak finantzatzea, udalerrian justizia sozialarekiko sentiberatasuna bultzatuz.

Dirulaguntza lerroa: 2. Hezkuntza sustatzea

***Lerro estrategikoa 2. Hezkuntza sustatzea** -Helburu estrategikoak: Herritarren garapen integrala sustatzea hezkuntzaren eta ikaskuntzaren bidez. Hezkuntza-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekimenak bultzatzea, herritarren gaitasunak, parte-hartzea, ongizatea eta gizarte-kohesioa indartzeko. Haur eta gazteen hezkuntza-prozesua indartzea eskolaz kanpoko eta komunitateko ikaskuntza-ekimenen bidez.
— Helburu zehatzak: Herritarren garapen pertsonala, soziala eta ongizatea sustatzea, bizialdi osoko ikaskuntza eta hezkuntza-aukeretarako sarbidea bultzatuz. Hezkuntza-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekimenak sustatzea, baita horiek garatzen dituzten elkarte eta taldeei laguntzea ere. Herritarren parte-hartzea, inklusioa eta gizarte-kohesioa indartzea hezkuntza- eta komunitate-ekimenen bidez. Haur eta gazteen garapen pertsonala, soziala eta komunitarioa sustatzea eskolaz kanpoko eta aisialdi hezitzaileko jardueren bidez. Herritarren prestakuntza eta kualifikazioa sustatzea hezkuntza- eta aisialdi hezitzailearen arloan. — Exekuzio epea: Urterokoa. — Finantzazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

ERANSKINA 1

Partida Partida	**Azalpena** *Objeto*	**Zenbatekoa (€)** *Importe (€)*	**Kudeaketa** *Gestión*	**Lerroa** *Línea*
481.00.231.30	Udal Gizarte Laguntzak	6.000	Lehian/ Concurrencia	1
481.00.230.00	Garapen Laguntza	25.000	Lehian/ Concurrencia	1
481.00.231.30	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak E.J.	40.000	Lehian/ Concurrencia	1
481.00.231.60	Gizarte, desgaitasuna, inkluisoa	2.000	Lehian/ Concurrencia	1

Idiazabalgo
Udala

481.00.323.00	Guraso Elkartea	13.000	Zuzenekoa/ Directa	2
481.00.337.10	Jubilatuen Elkartea	10.500	Zuzenekoa/ Directa	1
481.00.334.00	Axari dantza taldea	11.000	Zuzenekoa/ Directa	5
481.00.335.00	Illati Elkartea	10.000	Zuzenekoa/ Directa	3
481.00.341.00	Kirol Elkartea	55.400	Zuzenekoa/ Directa	4
481.00.341.50	Ane Mintegi beka	12.000	Zuzenekoa/ Directa	4
481.01.341.01	Herri kirol taldea	4.500	Zuzenekoa/ Directa	4
481.02.341.00	Goierri gorri nesken futbola	2.500	Zuzenekoa/ Directa	4
481.01.334.00	Kultur jardueren eta ekimenen dirulaguntza	1.500	Lehian/ Concurrencia	5
481.01.334.02	Abesbatza Elkartea	2.000	Zuzenekoa/ Directa	5
481.00.412.00	San Blas Baserritar Elkartea	36.000	Zuzenekoa/ Directa	6
481.01.335.00	Goierri irrati telebista	4.542	Zuzenekoa/ Directa	3
481.01.335.01	Goierriko hitza	6.813	Zuzenekoa/ Directa	3
481.02.334.00	Birigarroa Elkartea	20.000	Zuzenekoa/ Directa	5
481.02.335.00	Euskara alfabetatze laguntzak	2.000	Lehian/ Concurrencia	3
481.02.414.00	Otsoa elkarte hitzarmena	1.000	Zuzenekoa/ Directa	6
481.02.430.00	Tokiko merkataritza sustapena	20.000	Lehian/ Concurrencia	7
481.00.334.02	Lazkaoko Beneditarrak	687,90	Zuzenekoa/ Directa	5
481.00.231.00	Talde feminista	2.000	Zuzenekoa/ Directa	5
481.02.412.00	Landa Mugi programa	1.000	Lehian/ Concurrencia	1
481.01.326.00	Begirale, zuzendari	3.000	Lehian/ Concurrencia	2

Idiazabalgo Udala

5.- IDIAZABALGO UDALERRIAN AISIALDIKO BEGIRALEEN ETA ZUZENDARIEN PRESTAKUNTZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK. ONARPENA HALA BADAGOKIO.

Idiazabalgo udalerrian aisialdiko begiraleen eta zuzendarien prestakuntza sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea proposatu da.

Dokumentazioa eta idazkariaren txostena ikusita, Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

1.- Idiazabalgo udalerrian aisialdiko begiraleen eta zuzendarien prestakuntza sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileei hasierako onarpena ematea.

2.- Jendaurreko informaziorako epea irekitzea, hogeita hamar egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki oholean iragarkia jarriz.

Aldi berean, Udalaren www.idiazabal.eus webgunean argitaratuko da, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak biltzeko.

Jendaurreko epean hasierako onarpenari buruzko erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat joko da.

6.-GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA. ESTATUTO ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Fundazioaren Estatutuen 3. artikulua aldatu nahi da "…ikerketa aplikatua, garapen teknologikoa, berrikuntza eta ezagutza enpresa eta industria sarera transferitzea…" gehituz, eta, bestalde, Goierriko Herrien Ekintza eta Ikaslan Fundazioetako Patronatu Batzordeak 37 eta 38 kideetara zabaldu nahi dira, hurrunez hurren, 8 kide berriak enpresak izan beharko dutelarik.

Dokumentazioa eta idazkariaren txostena ikusita, Udalbatzak, aho batez, gehiengo osoz, erabaki du:

1.-Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren helburuen aldaketa; honela geratu lirateke:"Fundazioaren helburuak dira heziketa, irakaskuntza gradu edo genero guztietan, prestakuntza eta garapen tekniko eta soziala, ikerketa aplikatua, garapen teknologikoa, berrikuntza eta ezagutza enpresa eta industria sarera transferitzea, eta enplegua sustatzea eta Gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoera horretan izateko arriskua duten pertsonak eta/edo desgaitasun bat duten pertsonak eta/edo gizarte edo lan-arloetan desabantaila-egoerak bizi dituzten pertsonak laneratzea, batez ere Goierriko Eskualdean".

2.-Goierriko Herrien Ekintza eta Ikaslan Fundazioetako Patronatu Batzordeak 37 eta 38 kideetara zabaltzea, hurrunez hurren, 8 kide berriak enpresak izan beharko dutelarik.

7.- FORUEN ABOLIZIOAREN 150. URTEURRENA ETA ALKATEEN MUGIMENDUAREN 50. URTEURRENA MOZIOA. ONARPENA HALA BADAGOKIO.

Ondorengo mozioa jarri da onarpenerako:

Idiazabalgo
Udala

“UDAL MOZIOA

Foruen abolizioaren 150. urteurrena eta Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena direla eta

ZIOEN AZALPENA

2026. urteak garrantzi historiko eta politiko berezia du Euskal Herriarentzat. Izan ere, beste zenbait mugarriren artean –hala nola, Eusko Jaurlaritza eratu zela 90 urte betetzen dira– aurten bi efemeride nagusi ditugu: batetik, 1876ko uztailaren 21eko Foruen abolizioaren 150. urteurrena; eta, bestetik, 1976an Bergaran bildu zen Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena.

1876ko uztailaren 21eko legeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-erregimenaren abolizioa ekarri zuen, Bigarren Karlistadaren amaieraren testuinguruan. Nafarroa Garaiaren kasuan, foru-araubidearen eraldaketa eta burujabetza instituzionalaren murrizketa sakona lehenago gertatu zen, 1841eko Lege Hitzartuaren bidez, Lehen Karlistadaren ondoren. Lehenago, 1789-1790 urteen artean, Frantziako iraultzaren eskutik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa gertatu zen. Hiru prozesu horiek, bakoitza bere une historikoan eta bere berezitasunekin, Euskal Herriko lurraldeek mendeetan garatutako instituzio, eskubide historiko eta burujabetza politikoaren galera eta murrizketa ekarri zuten. Erabaki haiek herri borondatearen gainetik ezarri ziren, eta ondorio sakonak izan zituzten Euskal Herriaren egituraketa instituzionalean, lurralde-artikulazioan eta autogobernuan.

1876ko abolizio hartatik mende bat geroago, 1976ko uztailaren 21ean, frankismoaren amaieraren testuinguruan eta trantsizio politikoaren atarian, Euskal Herriko hainbat udal ordezkari Bergaran bildu ziren. Alkateen Mugimendu hark Foruen abolizioaren mendeurrena baliatu zuen Euskal Herriaren nortasun nazionala, eskubide historikoak, udal tradizio demokratikoa eta autogobernurako nahia aldarrikatzeko.

1976ko adierazpen hartan jasotako espirituak gaurkotasun osoa du oraindik ere. Izan ere, udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun politiko eta instituzionala funtsezkoa izan da, eta gaur egun ere udal erakundeek herritarren borondate demokratikoaren adierazpide hurbilena izaten jarraitzen dute.

Bergaran izan ziren alkateek eta zinegotziek aitortu zuten ez zitzaiela samurra gertatu herriaren nahia eta erabakia ulertu eta argitara ematean beren gain hartu zuten erantzukizuna betetzea; ala ere, haiek uste zuten heldu zela garaia argi eta garbi adierazteko herriaren eskubide politikoak iraungi ezinak eta ukaezinak direla. Auziaren benetako funtsa ez bait zegoen foraltasun zaharrean, eskubide historiko horiek eguneratzean baizik, foruek adierazten zituzten subiranotasun-eremuak euskal nazio ikuspegitik gaur egunera eta etorkizunera proiektatzean, alegia.

Orduan bezala, bizi dugun egoera honetan ere, desafio berriei ekin beharrez aurkitzen gara eta argi aldarrikatu nahi dugu, etorkizuneko gizarte erronkei erantzun baikor bat eman ahal izateko, euskal herritarren ahotsak bere lekua behar duela, hitzaren eta

Idiazabalgo Udala

erabakiaren jabe behar dugula izan.

Oso garrantzitsua da une hau hartu behar ditugun erabakietan asmatzeko. Erantzukidetasun politiko eta sozialaren garaia da. Gure herria eta bere jendea aurrera ateratzeko ordua, garapen ekonomikoa gizarte justizia eta subiranotasun politikoa oinarritzat hartuta.

Erronka horiei guztiei ezin zaie behar bezala erantzun eskumen mugatuekin. Gaurko auziek gaurko tresnak eskatzen dituzte, eta Euskal Herriak autogobernu eta burujabetza handiagoa behar ditu bere etorkizuna bere herritarren borondate demokratikoaren arabera antolatzeko.

Horregatik, oroimen historikoaren aitortzak gaur egungo autogobernuaren inguruko eztabaida politiko eta instituzionala elikatu behar du.

Horregatik guztiagatik, Idiazabalgo Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

ERABAKIAK

Lehena.

Idiazabalgo Udalak bat egiten du Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrenaren eta Foruen abolizioaren 150. urteurrenaren oroitzapenarekin, eta bi efemeride horien garrantzi historiko, politiko eta instituzionala aitortzen du.

Bigarrena.

Udal honek aitortzen du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa Frantziako iraultzarekin gertatu zela 1789 eta 1790 artean; horrez gain, aitortzen du 1841ean Nafarroa Garaian, eta 1876an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ezarritako foru-erregimenaren murrizketa eta abolizio prozesuek euskal lurraldeen jatorrizko eskubide historikoen eta burujabetza instituzionalaren galera ekarri zutela. Era berean, aldarrikatzen du eskubide horiek ez direla iraungi, ezta herri borondate demokratikoaren ordez kanpoko erabakiz deuseztatu ere.

Hirugarrena.

Udal honek berresten du Euskal Herria Europako herri guztien artean berezko nortasuna eta nazio izaera duen herria dela, historia, gizarte eta kulturako ondare berezi baten gordailu; bi estatutan kokatuta eta gaur egun hiru eremu juridiko-politiko ezberdinetan antolatuta dauden zazpi lurraldeetan duela bere leku geografikoa eta euskal nazioa osatzen duten herritarrek dutela beren etorkizun politikoa modu libre eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea.

Laugarrena.

Udal honek aldarrikatzen du beharrezkoa dela foru integrazioaren eta burujabetza

osoaren bidean urrats berriak egitea, eta, horretarako, Euskal Herriko lurraldeen eskubide historikoak eta autogobernua eguneratzea, gaur egungo behar demokratiko, sozial eta instituzionaletara egokituz.

Bosgarrena.

Udal honek aitortzen du udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun erabakigarria, bereziki foru tradizioan, udal demokrazian eta herri ordezkaritzan; eta konpromisoa hartzen du etorkizunean ere Euskal Herriaren eraikuntza demokratikoan, erakunde demokratikoen rola indartzeko eta hauen artean, bereziki, udal erakundeena.

Seigarrena.

Udal honek bat egiten du 2026ko uztailaren 19an Bergaran antolatuko den ekitaldi politiko-instituzionalaren helburuekin, Alkateen Mugimendua gogoratzeko, 1976ko udal ordezkarien ekarpena aitortzeko eta Euskal Herriaren eskubide historikoen aldeko konpromisoa berritzeko.

Idiazabalen, 2026ko maiatzaren 26”

8.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Seiak eta hogeita hamasei minutu direnean bilkura bukatu egin da.

XABIER OTAEGUI LEUNDA - 34090688L

Digitalki sinatuta norengandik: XABIER OTAEGUI LEUNDA - 34090688L
Data: 2026.07.23 19:10:00 +02'00'

ALBERDI IPARRAGUIRRE IÑAKI - 72456101Y

Digitalki sinatuta norengandik: ALBERDI IPARRAGUIRRE IÑAKI - 72456101Y
Data: 2026.07.24 08:16:36 +02'00'